



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

OGASUNEKO DIPUTATUAK PFEZ-REN ETA SOZIEDADEEN ZERGAREN GANEKO FORU ARAU PROIEKTU BARRI BI AZALDU DITU BATZORDEAREN AURREAN, OPOSIZINOAK ESKATUTA

- **Lehenengo arauak ekintzailetzea sustatzen daberen funtsetarako fiskaltasuna ezarten dau, eta bigarrenak soziedadeen zerga Europako Batzordeko arautegira egokitzen dau, Portuko Agintaritzen tributazioari jagokenean.**

(Bilbon, 2020ko urtarrilaren 23an).- José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako Diputatua Bizkaiko Batzar Nagusietako Batzordearen aurrera etorri da, oposizioa hiru taldeek (EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia eta Talde Berezia / PP Bizkaia) eskatuta, Foru Arau proiektu barri bi azaltzeko.

Lehenengoak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Araua aldatzen dau, enpresa proiektu barritzaileak eta potentzial handikoak finantzatuz ekintzailetzea sustatzen daberen funtsen kudeatzaileek lortutako errentak erreguleta. Tributazio hori Erregimen Bereziko atal barrian sartzen da (IV. lizenburuko VI Bis Kapituluak), eta ekintzailetzeagaz, barrikuntzagaz eta jarduera ekonomikoaren garapenagaz erlazionatutako funtsen kudeaketaren ondorioz lortutako laneko etekinak oinarri zergagarrian % 50ean sartuko dirala ezarten dau. Ganera, zergadunek aurretik jakinarazo beharko deusie Ogasunari, eta arauan ezarritako hainbat betebeharrak eta baldintza bete.

Iruarrizagak azaldu dauenez, jarraitu dan ereduak alemana da, eta helburua, gure lurraldeko arautegi fiskala Europar Batasuneko herrialde aurreratuenek daukien arautegiaren parean jartea da, inbertsio funts alternatiboen kudeatzaile horreek erakarteko. Une honetan, ez dago Bizkaian aritzen dan holango funtsetako kudeatzailearik.

La segurua dan Erresuma Batuen urteera Europar Batasunetik be etorri da barri batzordeko eztabaidara. Iruarrizagaren berbetan, Erresuma Batuan holango 18.000 inbertsio funts baino gehiago dagoz. Brexita dala eta, beste lurralde batzuetara joan beharko dabe, eta Bizkaia aukeratu ahal izango dabe, eurentzat pentsautako dagon fiskaltasuna eukiko dauelako.

Iruarrizagak, Foru Aldundiak, Bizkaia "ekintzailtzaren eta oinarri teknologikoko enpresen nazinoarteko erreferente" bilakatzeko daukan helburu estrategikoaren barruan jarri dau zergaren aldaketa hori.

Bizkaiko Batzar Nagusiek berretsi beharko daben Foru Arauaren proiektua preminazko prozeduraren bitartez ari da tramitetan, funts alternatibo horreek ahalik eta arinen erregulauta eukitea gura dauen Aldundiak berak eskatuta.

Beste alde batetik, eta EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia eta Talde Berezia / PP Bizkaia taldeek eskatuta, baita be, Ogasun eta Finantzetako Diputatuak, Soziedadeen ganeko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Araua aldatzen dauen Foru Arauaren Aurreproiektuaren ganeko azalpenak be emon ditu. Aurreproiektuak ezarten dauenez, Portuko Agintaritzek kontzeptu horrengaitik zergak ordaindu ahal izango ditue, orain arte salbuetsita egon diran arren.

Iruarrizagak azaldu dauenez, arau barriak, Estaduaren Administrazio Orokorren esku egon arren, zergak Bizkaiko Ogasunean ordaintzen dituan Bilboko Portu Agintaritzan bakarrik eukiko dau eragina. Europako Batzordeak, gauzatzen dituen merkataritza arloko jarduerengaitik tributuko ordaintzera behartzen ditu portuetako agintariak, gastuetara eta inbertsinoetara zuzendutako zenbatekoen kuota osoaren kenkariagaz.

Bizkaiko Batzar Nagusiek onetsi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero sartuko dira indarrean gaur jorratu diran arau fiskal biak, urte honetako urtarrilaren 1eko atzeraeraginezko efektuagaz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

EL DIPUTADO DE HACIENDA EXPLICA EN COMISIÓN DOS NUEVOS PROYECTOS DE NORMAS FORALES DE IRPF E IMPUESTO DE SOCIEDADES A PETICIÓN DE LA OPOSICIÓN

- **La primera de las normas establece la fiscalidad para fondos que fomenten el emprendimiento y la segunda adapta el Impuesto de Sociedades a la normativa comunitaria en lo que concierne a las Autoridades Portuarias.**

(Bilbao, a 23 de enero de 2020).- El Diputado de Hacienda y Finanzas José María Iruarrizaga ha comparecido ante la Comisión correspondiente de las Juntas Generales de Bizkaia a petición de los tres grupos de la oposición (EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia y Grupo Mixto / PP Bizkaia) para explicar dos nuevos proyectos de Norma Foral.

El primero de ellos modifica la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, para regular las rentas obtenidas por los gestores de fondos que fomenten el emprendimiento financiando proyectos empresariales innovadores y de alto potencial.

Esta tributación entra dentro del nuevo capítulo de Regímenes Especiales (Capítulo VI Bis del Título IV) y fija que los rendimientos de trabajo obtenidos por la gestión de fondos vinculados al emprendimiento, a la innovación y al desarrollo de la actividad económica se integrarán en la base imponible a un 50%. Los y las contribuyentes tendrán además que realizar una comunicación previa a Hacienda y cumplir una serie de obligaciones y requisitos establecidos por en la norma.

Según ha explicado Iruarrizaga, el modelo que han seguido es el alemán y el objetivo es equiparar la normativa fiscal del territorio a la que ya tienen los países más avanzados de la Unión Europea para conseguir atraer a estos gestores de fondos de inversión alternativos. Actualmente, ningún gestor de este tipo de fondos opera en Bizkaia.

La más que probable salida del Reino Unido de la Unión Europea se ha colado más de una vez en el debate de la comisión. Según Iruarrizaga, en el Reino Unido existen más de 18.000 fondos de inversión de este tipo que con el Brexit tendrán que instalarse en otros territorios y que podrían elegir Bizkaia ya que contará con una fiscalidad pensada para ellos.

Iruarrizaga ha enmarcado este cambio tributario dentro del objetivo estratégico de la Diputación Foral para convertir a Bizkaia en “un referente internacional de emprendimiento y de empresas de base tecnológica”.

Este proyecto de Norma Foral, que deberá ser ratificado por las Juntas Generales de Bizkaia, se está tramitando por el procedimiento de urgencia, a petición de la propia Diputación que quiere cuanto antes tener regulados fiscalmente estos fondos alternativos.

Por otro lado y a petición también de EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia y Grupo Mixto / PP Bizkaia, el Diputado de Hacienda y Finanzas ha dado explicaciones sobre el Proyecto de Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades, para adaptarla a la decisión de la Comisión Europea que fija que las Autoridades Portuarias podrían tributar por este concepto del que hasta ahora estaban exentas.

Según ha explicado Iruarrizaga, la nueva norma sólo afecta a la Autoridad Portuaria de Bilbao que depende de la Administración General del Estado pero que tributa en la Hacienda de Bizkaia. La decisión comunitaria obliga a las autoridades portuarias a tributar por las actividades mercantiles que llevan a cabo con una deducción de la cuota íntegra de los importes destinados a gastos e inversiones.

Una vez sean aprobadas por las Juntas Generales de Bizkaia y publicadas en el Boletín Oficial de Bizkaia, las dos normas fiscales debatidas hoy en comisión entrarán en vigor con efectos retroactivos desde el 1 de enero de este año.